



**Arartekoaren 2019R-1227-18 Ebazpena, 2019ko abenduaren 17koa. Horren bitartez, Gornzko Udalari gomendatzen zaio berriz azter dezala ibilgailuak aparkatzea mugatzeko eta antolatzeo kontrol-zerbitzu publikoa arautzen duen ordenantza, erroldatutako egoiliarrei eta oporretako egoiliarrei ematen zaien tratuari dagokionez, eta era koherentean erantzun diezaiola 2018ko zerbitzuaren kudeaketaren ondoriozko bidegabeko diru-sarrerak itzul diezazkioten kexagileak egin duen eskaerari.**

### Aurrekariak

1. Gornzko oporretako egoiliar batek Arartekoaren esku-hartzea eskatu zuen, udalak berak bidalitako idazkiei erantzun ziezaien; idazki horien bidez, interesdunak adierazi zuen ez zegoela ados aparkaldi mugatuko sistemaren erregulazioaren alderdi batzuekin, bai eta 2018ko udan, sistema ezarri zenean, hura kudeatu zen moduarekin.

Idazki horietan, urte horri lotutako kontu hauek zirela-eta kexatu zen interesduna: aipatutako araubideari buruzko ordenantzaren xedapen batzuk zirela-eta, hura aldatzeko jarraitutako prozedura zela-eta, oporretako egoiliarrentzako aparkatze-bonuak kudeatzeko modua zela-eta, eskatu zuen lehen bonua eskuratu zuenean bigarren bonuari zegokion tasa aplikatu ziotela-eta, bonuak emateko orduan izandako atzerapena zela-eta, eta horiek eskuratzeko orduan izan zituen eragozpenak eta gastuak zirela-eta. Era berean, eskatu zuen erositako lehen bonuagatik bere ustez bidegabe kobratu zioten zenbatekoa (20 euro) itzultzeko, bai eta kudeaketaren ondorioz sistema indarrean egon ez zen hilabeteari zegokiona ere.

Interesduna ez zetorren bat udalaren jarduketa hauekin:

-Udalak legez ezarritako prozedurari jarraitu gabe aldatu zuen zerbitzu horri buruzko ordenantza. Horrek, interesdunaren ustez, baliogabetu egiten zituen aldaketa horietan oinarrituta egindako jarduketak.

-Ordenantzan, egoiliarrak erreferentziatzat hartuta ezarri zen oporretako egoiliarrentzako aparkatzeko bonuen gehieneko kopurua; ondorengo aldaketetan, berriz, horiek bizi ziren etxebizitza hartu zen erreferentziatzat.





-2018ko maiatzaren 22ko bandoaren arabera, oporretako egoiliarren bonuak jaso ahal izateko, ordenantzak ezartzen ez zuen baldintza bat bete behar zuten interesdunek, hain zuzen ere bizi ziren etxebizitzaren ondasun higiezinaren gaineko zergaren titularrarekin ahaidetasun-harremana zutela egiaztatzea.

-Ordenantzan, justifikaziorik gabeko tratu desberdina ematen zitzaizen erroldatutako egoiliarrei eta oporretako egoiliarrei. Erroldatutako egoiliarrek doan eta ibilgailu-kopuruari dagokionez mugarik izan gabe aparka zezaketen. Oporretako egoiliarrek, berriz, aparkatzeko tasa ordaindu behar zuten eta gehenez ere bi ibilgailu aparka zitzaiketen; aitzitik, Osoko Bilkurak ondoren hartutako erabakiak aukera eman zien hirugarren bonua lortzeko.

-Ordenantzaren 12. artikulua urratu egiten zuen Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen (39/2015, urriaren 1ekoa) 53. artikulua, jadanik udalaren esku zegoen dokumentazioa eskatzen baitzuen oporretako egoiliarren araubideari atxiki ahal izateko.

-Ordenantzan, ez ziren aintzat hartzen alokairuko etxebizitzetan bizi ziren oporretako egoiliarrak.

-Ordenantzan, ez zen zerbitzua eteten zen kasuetarako konpentsazio-mekanismoak ezartzen oporretako egoiliarren bonuetarako, baina ordainpeko gainerako erabiltzaileentzako bai.

2. -Kexa izapidetzeko onartu eta aztertu ondoren, Arartekoak Gorlizko Udalarengana jo zuen, planteatutako gaien eta horien inguruan udalak egindako balorazioaren berri eman ziezaion.

Era berean, eskatu zion jakinarazteko zer arrazoik justifikatzen zuten ordenantzan erroldatutako egoiliarrei eta oporretako egoiliarrei tratu desberdina ematea.

Eskaera horri erantzunez, udalak erakunde honi adierazi zion interesdunaren idazkiei erantzun zuela, eta jakinarazi ziola bere planteamendu guztiak kontuan hartuko zirela hurrengo denboraldirako ordenantza aldatzeari begira.

Era berean, adierazi zigun zerbitzua martxan jartzean agerian geratu zela ordenantza aldatu behar zela, eta, herritarrei kalterik ez eragiteko, aldi baterako neurriak ezarri zirela, hain zuzen ere hainbat erabiltzaile motari aparkatzeko





txartelak ematea, kontuan izanik zer maiztasunekin erabiltzen zuten zerbitzua eta zer premia zituzten.

Hala ere, erroldatutako egoiliarrei eta oporretako egoiliarrei ordenantzan tratatu desberdina ematea justifikatze aldera, honako hau adierazi zen: *“los residentes en Górliz son necesariamente usuarios del servicio, toda vez que desarrollan su vida en el municipio, en tanto que los residentes vacacionales se desplazan a Górliz únicamente algunos meses o semanas al año. Y así como los primeros contribuyen con sus obligaciones fiscales al mantenimiento de los servicios municipales, los segundos tributan y gozan por ello de derechos en sus municipios de procedencia”*.

Kexagileak eskatutako lehen bonua eskuratzeko ordaindu behar izan zuen zenbatekoa eta sistema indarrean egon ez zen hilabeteari zegokiona itzultzeko eskaerari dagokionez, informazioak aitortzen zuen *“que este primer año de implantación la gestión de los bonos ha desbordado todas las previsiones, generando retrasos en su concesión y, lamentablemente, molestias a los usuarios”*. Halaber, adierazi zuen esperientziak balioko zuela hurrengo denboraldirako udal-bulegoetako lana barrutik berrantolatzeke, izapideak sinplifikatuz eta tramitazioa aurreratuz. Horrez gain, esan zuen, bonuak berandu eman zirenez, atzeratu egin zela zerbitzuaren bete-beteko funtzionamendua.

Informazio horretan, ez zen ezer aipatu ez ordenantzan ezarritako prozedurari jarraitu gabe aldaketak egin izanari buruz, ez aldaketa horien eta hartan oinarrituta emandako egintzen baliozkotasunik ezari buruz, ez interesdunaren ustez bidegabe ordaindutako zenbatekoak itzultzeari buruz.

Kexagileak egindako eskaerei erantzunez igorritako idazkietan —interesdunak Arartekoari helarazi zizkion— ere ez ziren lehenengo bi gai horik jorratu.

Aitzitik, kexagilearen iritziz bidegabe ordaindutako zenbatekoak itzultzeari buruzko galderari erantzun zitzaion, esanez *“de conformidad con la normativa reguladora del servicio de control de limitación y ordenación del estacionamiento, el segundo bono que corresponde a los usuarios de alta frecuencia tiene establecido un costo de 50 euros”*. Horrez gain, hau adierazi zen: *“a fin de dar respuesta a su solicitud de compensación resulta preciso tramitar el preceptivo procedimiento de responsabilidad patrimonial, para lo cual deberá explicar en su solicitud las lesiones producidas, la presunta relación de causalidad entre las mismas y el*





*funcionamiento del servicio público, la evaluación económica de la responsabilidad patrimonial y el momento en que la lesión efectiva se produjo”.*

Halaber, emandako informazioan ez zen ezer adierazi kexagileak planteatu zituen gainerako gaiei buruz. Aitzitik, bazirudien informazioak kontu horiek zituela hizpide, horren arabera interesdunari jakinarazi baitzitzaion bere planteamenduak kontuan izango zirela 2019rako ordenantza aldatzeari begira.

3. Interesdunak —erakunde honek udal-informazioa helarazi zion— berretsi zuen ez zegoela ados erroldatutako egoiliarrei eta oporretako egoiliarrei ordenantzaren tratu desberdina ematearekin, bai eta udalak egin zuen interpretazioarekin, oporretako egoiliarrentzako aparkatzeko bonua etxebizitzarekin lotu baitzuen, ez egoiliarrekin, bere iritziz zerbitzua arautzen duen ordenantzak ezarri arren egoiliarrekin lotu beharra zegoela. Era berean, berriz esan zuen ez zegoela ados hirugarren bonua sortzearekin eta legez ezarritako prozedurari jarraitu gabe zerbitzua arautzen duen ordenantzaren aldaketak egitearekin, eta azpimarratu zuen jarduketa horiek ordenamendu juridikoaren aurkakoak zirela eta udalak horietan oinarrituta kobratutako kopuruak itzuli behar zituela.
4. Aipatutako informazioari erreparatuta, Arartekoak, hurrengo epigrafean azaldutako gogoetetan oinarrituta, jo zuen aparkaldi mugatuko zerbitzuaren erregulazioa ez zetorrela bat Konstituzioan jasotako segurtasun juridikoaren printzipioarekin, eta udalak erregulazio hori berrikusi behar zuela, printzipio horretara egokitzeko. Horrez gain, erakunde horren ustez, zerbitzua arautzen duen ordenantzaren eta dagokion zerga-ordenantzaren aldaketak, osoko bilkuraren erabakiz egindakoak, ez ziren baliozkoak, eta erroldatutako egoiliarrei eta oporretako egoiliarrei zerbitzua arautzen duen ordenantzaren tratu desberdina ematea justifikatzeko emandako azalpenek ez zuten justifikatzen egoiliar batzuei eta besteei tratu desberdina ematea. Azkenik, Arartekoak esan zuen udalak erantzun koherentea eman behar ziola kexagileak bidegabe ordaindutako zenbatekoak itzul ziezazkioten egin zuen eskaerari.

Arartekoak kexaren balorazioa helarazi zion udalari, jakinaraz ziezaion adierazitako moduan jarduteko prest ote zegoen, eta, hala bazegokion, zergatik ez zuen jardungo erakunde honen jarraibideen arabera.

Era berean, eskatu zion iragarritako erregulazio berriaren inguruan udalak zituen aurreikuspenen berri emateko, eta jakinarazteko zer balorazio egin zuen udalak interesdunak planteatutako gaien erregulazioa egitean.





Beste eskaera horri erantzunez, udalak Arartekoari jakinarazi zion zerbitzuaren erregulazioan hainbat aldaketa egitea onartu zela, eta aldaketa horiek, bere iritziz, kexagilearen eskaera batzuk asebetetzen zituztela, hala nola oporretako egoiliarrentzako aparkatzeko bonua bizikidetzta-unitate bateko kide izatearekin ez lotzea eta 50 euroko tasa bakarra ezartzea oporretako egoiliarren bonuetako bakoitzerako —araudi berriak bi bonu aitortzen zizkion oporretako egoiliarren jabetzako etxebizitza bakoitzari—.

Hala ere, udalak esan zuen erroldatutako eta oporretako egoiliarrei ordenantzan tratatu desberdina ematea —araudi berriari ere eutsi egin zitzaion alde horri— ez zela diskriminatzailea, erakunde honek bere balorazioan aztertu zituen argudio berberak erabiliz, alegia, erroldatutako egoiliarrek udalerritari ekarpen fiskal handiagoa egiten ziotela esanez.

Bestalde, udalak hitzeman zuen modu kongruentean ebatziko zuela kexagileak bidegabeko diru-sarrerak itzultzeko egin zuen eskaera.

5. Zerbitzua arautzen duen ordenantza berriaren testu osoa, 2019an onartutako aldaketak aurrekoari gehitzearen ondoriozkoa, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, 2019ko maiatzaren 8an, erakunde honek kexaren balorazioa udalari igorri ondoren.

### Gogoetak

1. Gorlizen ibilgailuak aparkatzea mugatzeko eta antolatzeko kontrol-zerbitzu publikoa arautzen duen ordenantza, udara mugatutakoa, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 2017ko abuztuaren 7an, eta haren manuetako batzuk zerbitzua abian jarri aurretik aldatu ziren, 2018ko udan. Ordenantzaren aldaketa hori legez ezarritako prozedurari jarraituz egin zen, eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 2018ko apirilaren 17an.

2018rako zerga-ordenantzak aldatu zituen ordenantzan, 2017ko abenduaren 29ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zenean, ezarri ziren gune mugatuan aparkatzeagatiko eta oporretako egoiliarrentzako aparkatze-bonuengatiko tasak. Hona hemen ordenantzan jaso ziren oporretako egoiliarrentzako bonuen tasak:

*“Maiztasun handiko erabiltzaileentzako bonuak, Gorlizko OHZren jabea 1. mailarainoko senidea izanik, 30,00.*





*“Maiztasun handiko erabiltzaileentzako 2. bonua, Gorlizko OHZren jabea 1. mailarainoko senidea izanik, 50,00”.*

2018ko maiatzaren 22an bando bat eman zen. Horren arabera, oporretako egoiliarrentzako bonuak eskuratu ahal izateko, ordenantzan ezarritako baldintzak betetzeaz gain, egiaztatu behar zen bonua erabiliko zuen ibilgailuaren titularrak eta etxebizitzaren Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren titularrak ahaidetasun-harremana zutela.

Hurrengo ekainaren 7an, Osoko Bilkurak onartu zuen kasu jakin batzuetan 2018ko ekitaldirako aparkatzeko txartel bereziak ematea, bai eta 80 euroko bonua ere *“a todos los IBI de vivienda (número fijo de vivienda), empadronados o no, que lo tengan abonado, sin necesidad de justificar parentesco”*. Neurri horiek *“soluciones transitorias de interpretación en la aplicación de la Ordenanza reguladora del servicio de limitación y ordenación del estacionamiento para el ejercicio 2018”* akordioan zeritzon horretan sartzen ziren.

Erakunde honek dakiela, zerbitzua arautzen duen ordenantzaren eta zerga-ordenantzaren aldaketa horiek ez ziren onartu ordenantzak onartzeko jarraitutako prozedura beraren arabera.

2. Konstituzioaren 9.3 artikulua bermatzen du segurtasun juridikoa, eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legean (39/2015, urriaren 1ekoa) erregelamenduak egiteko ahalmenaren mende jartzen den erregulazio onaren printzipioetako bat da (129. artikulua).

Printzipio horri dagokionez, honako hau adierazi du Konstituzio Auzitegiak: *“La exigencia del 9.3 relativa al principio de seguridad jurídica implica que el legislador debe perseguir la claridad y no la confusión normativa, debe procurar que acerca de la materia sobre la que se legisle sepan los operadores jurídicos y los ciudadanos a qué atenerse, y debe huir de provocar situaciones objetivamente confusas (...). Hay que promover y buscar la certeza respecto a qué es Derecho y no, como en el caso ocurre, provocar juegos y relaciones entre normas como consecuencia de las cuales se introducen perplejidades difícilmente salvables respecto a la previsibilidad de cuál sea el Derecho aplicable, cuáles las consecuencias derivadas de las normas vigentes incluso cuáles sean éstas”* (46/1990 Epaia, martxoaren 15ekoa, 4. oinarri juridikoa).





Urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera, segurtasun juridikoaren printzipioak eskatzen du kasuan kasuko araugintza-ekimena gauatzeko orduan gainerako ordenamendu juridikoarekiko —nazionala nahiz Europar Batasuneko— koherentziari eustea, arau-esparru egonkorra, aurreikusteko modukoa, integratua, argia eta ziurtasunezkoa sortzeko, araudiaren hartzaileek hura errazago ezagut eta uler dezaten, eta errazagoa izan dadin beraientzat jarduketak egitea eta erabakiak hartzea (129. artikulua).

Halaber, aipatutako legeak xedatzen du administrazioak aldi-aldi berrikusi behar duela bere araudia, erregulazio onaren printzipioetara egokitzeko (130. artikulua).

Gorlizko Udalak emandako azalpenen eta erakunde honek bildutako datuen arabera, Arartekoak jo zuen, arestian adierazi denez, udalerrri horretako aparkaldi mugatuko sistemaren hasierako erregulazioa, 2018ko udan aplikatu zena, ez zettorrela bat segurtasun juridikoaren printzipioarekin, eta udalak araudia berrikusi behar zuela printzipio horretara egokitzeko.

3. Udalek dagozkien ordenantzen bidez baliatzen dute erregelamenduak egiteko ahala, eta ordenantzak lege ezarritako prozeduraren arabera onartu eta aldatu behar dira —urriaren 1eko 39/2015 Legearen 128. artikulua, apirilaren 2ko 7/1985 Legearen (Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituena) 49. artikulua eta toki-araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenen testu bateginaren (apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua) 56. artikulua—.

Halaber, udalek zerga-ordenantzaren bidez sortu behar dituzte tasak. Ordenantza hori lege ezarritako prozedurari jarraituz onartu eta, hala badagokio, aldatu behar da (Toki Ogasunei buruzko abenduaren 16ko 9/2005 Bizkaiko Foru Arauaren 15. eta 16. artikulua).

Ordenantzak ez dira indarrean jarriko eta ez dute ondorio juridikorik izango harik eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu arte. Ordenantza ez-fiskalen kasuan, gainera, apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 65.2. artikuluan zehaztutako epea igaro behar da (urriaren 1eko 39/2015 Legearen 131. artikulua, apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70. artikulua eta abenduaren 16ko 9/2005 Bizkaiko Foru Arauaren 16. artikulua).

Horregatik, Arartekoa bat dator kexagilearekin: 2018rako zerga-ordenantzen eta aparkaldi mugatuko zerbitzua arautzen duen ordenantzaren aldaketek, zeinak





Osoko Bilkuraren erabakiz egin baitziren, ez ziren baliozkoak, legez ezarritako prozedurari jarraitu gabe eta legez eskatutako publizitate-araubidea alde batera utzita egin zirelako.

Zehaztu behar da, erakunde honen iritziz, udalak adierazi duenez, Osoko Bilkuraren erabakian ez ziren aipatutako ordenantzak interpretatu, horiek aplikatze aldera; aitzitik, gure ustez, aldatu egin ziren ordenantza horiek, zerbitzuaren ordenantzan arautu gabeko egoerak arautu zirelako eta zerga-ordenantzetan aurreikusi gabeko tasa berria sortu zelako.

4. Ibilgailuak aparkatzea mugatzeko eta antolatzeko kontrol-zerbitzu publikoa arautzen duen ordenantzaren 12. artikulua, 2018an egindako aldaketaren ondoriozko idazketa berrian, honako hau xedatzen zuen:

"Honako hauek dira maiztasun handiko erabiltzaileak:

*-Oporretako egoiliarak, baldin eta, Gorlizko udalerrian erroldatuta ez egonik, udalerrri horretan kokatutako etxebizitzaren jabeak badira eta ondasun higiezinaren gaineko zergari lotuta badaude.*

*Oporretako egoiliarrek udalak erabakitzen duen tarifaren bi ordainketa jaso ahal izango dituzte gehienez. Gorlizen ibilgailuak aparkatzea mugatzeko eta antolatzeko kontrol-zerbitzu publikoaren esleipendun den enpresak kudeatuko du ordainketa hori. Artikulu honetan ezartzen denerako, joko da etxebizitzaren titularraren bizikidetzaren unitatea osatzen dutela haren gurasoek, seme-alabek, ezkontideak edo izatezko bikotekideak.*

*Araubide horretan sartu ahal izateko, artikuluko honetako a) apartatuan aipatzen diren maiztasun handiko erabiltzaileek dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:*

*-Eskatzailearen NANaren fotokopia.*

*-Araubide honi atxiki behar zaion ibilgailuaren zirkulazio-baimenaren fotokopia.*

*-Jabetzako etxebizitzaren OHZren ordainagiriaren fotokopia".*

Erakunde honen iritziz, manuak hitzez hitz babesten du kexagileak egin zuen interpretazioa, hau da, artikuluko horrek eskubidea ematen zuela oporretako







egoiliarrentzako aparkatzeko bonua eskuratzeko etxebizitzaren jabea erreferentziatzen hartuta, ez etxebizitza.

Kontuan izan behar da ordenantzak xedatzen zuela oporretako egoiliar eta aldi berean bizi ziren etxebizitzaren jabe ziren pertsonak zirela bonuaren onuradunak, eta definizio horretan ez zegoela etxebizitzari buruzko aipamenik.

Interesdunak erakunde honi eman dion informazioaren arabera, emaztea eta bera bizi diren etxebizitzaren jabeak dira. Beraz, haien interpretazioaren arabera, bakoitzak bi bonu jasotzeko eskubidea zuen 2018an, eta berak lehenik eskatu zuena ezin zen bigarren bonutzat hartu, lehenengotzat baizik.

Gure iritziz, zerbitzua arautzen duen ordenantzan ageri zen bonuen onuradunen definizioa ez dator bat zerga-ordenantzan ageri zen zerga-egitatearen deskribapenarekin. Izan ere, egitate horren deskribapena ahaidetasun-harremanari lotuta zegoen, baina, adierazi denez, zerbitzua arautzen duen ordenantzan eskubidea definitzeko orduan, erroldatu gabeko oporretako egoiliarak eta bizi ziren etxebizitzaren jabeak hartzen ziren kontuan.

Arartekoaren ustez, "artikulu honetan ezartzen denerako, joko da etxebizitzaren titularraren bizikidetzaren unitatea osatzen dutela haren gurasoek, seme-alabek, ezkontideak edo izatezko bikotekideak" tartekia —zeina hasierako ordenantza aldatzean erantsi baitzitzaion 12. artikuluari— ere ez dator bat zerbitzua arautzen duen ordenantzan ageri den bonuak lortzeko eskubidearen definizioarekin.

Erakunde honen iritziz, oporretako egoiliarrentzako aparkatzeko bonuak jasotzeko eskubidea eta bonuak emateko tasa zehaztu ziren moduan hautemandako desberdintasunek, zeinak 2018an aplikatu baitziren, beste nahasmen-iturri bat eragin zuten. Hura eskubidearen edukian eta onuradunengan proiektatu zen, eta, ustez, aurretik adierazi dugunez, Konstituzioan jasotako segurtasun juridikoaren printzipioan ere eragin zuen.

5. Adierazi denez, udalak berrikusi egin zuen aparkaldi mugatuko zerbitzuaren hasierako erregulazioa, zeina sistema ezarri zen aldian, hau da, 2018ko udan, indarrean egon baitzen, eta, berrikuspen horren ondorioz, beste erregulazio bat onartu zuen (2019ko udan aplikatu zen lehenengo aldiz).

Erakunde honen iritziz, aurreko erregulazioan egindako aldaketak lege ezarritako prozeduraren bidez onetsita eta ordenantza berriaren testu osoa Bizkaiko Aldizkari





Ofizialean argitaratuta, zuzendu egin ziren lehen erregulazioan, legezko prozedurari jarraitu gabe eta behar bezalako publikotasunik eman gabe aldaketak egitearen ondorioz, segurtasun juridikoari egindako kaltea.

Erregulazio berriak eta jabari publikoaren erabilera pribatiboagatiko edo aprobetxamendu bereziagatiko tasak arautzen dituen zerga-ordenantzak (Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, 2019ko ekainaren 19an) zuzendu egin zituzten oporretako egoiliarrentzako aparkatze-bonuen definizioan hautemandako bat ez etortzeak.

Zerbitzua arautzen duen ordenantza berrian, erroldatu gabeko alokairu-etxebizitzan oporretako egoiliarren kategoria sortu zen (hura ez zegoen jasota aurreko ordenantzan). Pertsona horiei dagokion tasa ordaindu ondoren aparkatzeko bonua lortzeko eskubidea aitortzen zaie (zerbitzua arautzen duen ordenantzaren 12. artikulua, jabari publikoaren erabilera pribatiboagatiko edo aprobetxamendu bereziagatiko tasak arautzen dituen zerga-ordenantzaren F epigrafeari lotua).

Nolanahi ere, araudi berrian, eutsi egin zaio interesdunak kexan zalantzan jarri zuen erroldatutako eta erroldatu gabeko egoiliarren arteko bereizketari. Lehenengok doan aparkatzeko aukera dute oraindik ere, eta ez dute mugarik ibilgailuen kopuruari dagokionez; etxebizitza jabetzan duten oporretako egoiliarrek, berriz, tasa bat ordaindu behar dute aparkatzeko, eta gehienez ere bi ibilgailu aparka ditzakete. Araudi berrian, gainera, erroldatutako egoiliarrei dagokion tasa ordaindu ondoren gehienez ere bi matrikulari atxikitako aparkatzeko bi bonu lortzeko eskubide gehigarria aitortzen zaie —zerbitzua arautzen duen ordenantzaren 11. eta 12. artikulua (aurreko ordenantzan ez zen eskubide hori jaso)—.

6. Aparkaldi mugatuaren araubidearen eraginpean egon daitezkeen pertsonentzat araudi desberdina ezartzeko aukera, erakunde honen iritziz, ordenamendu juridikoak aparkalekuen txandakatzea bermatze aldera udalei trafikoa antolatzeko, aparkalekuak arautzeko eta aparkaldi mugatuko neurriak ezartzeko ematen dien diskrezionalitate-tarte zabalean dago babestuta [Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25.2.g) artikulua eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17.4 artikulua, urriaren 30eko 6/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren (Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen testu bategina onartzen duena) 7.a) eta b) eta 39.4 artikuluei lotuta].





Ahalmen horren arabera, udal-administrazioek legez hauta dezakete, egon daitezkeen aukeren artean, ahalmen hori baliatuta bete behar dituzten xedek betetzeko egokiena iruditzen zaiena.

Administrazioaren balioespen subjektiboaren ondorioz eratzen diren elementuekin batera, ordea, legez ezarritako beste elementu batzuk daude ahalmen diskrezional orotan, eta horiei dagokienez ez dago balioespen-tarterik. Elementu arautu deritze azken horiei, eta hauek hartzen dituzte barne: ahala izatea, haren hedadura, prozedura, hura erabiltzeko eskumena eta zein xedetarako eman den.

Horrez gain, doktrinan eta jurisprudenzian zehaztutako muga jakin batzuen arabera baliatu behar dira ahalmen diskrezionalak. Muga horietako batzuk doktrinaren eta jurisprudenziaren eduki arautuari lotuta daude, eta beste batzuek zuzenbidearen printzipio orokorrekin eta egitate erabakigarriekin dute zerikusia.

Aipatutako muga guztien artean, komeni da nabarmentzea, kexak sortzen dituen gaiekin duen loturagatik, eskumenaren erabilera egokitu behar zaiela hura ahalbidetu duen arauaren xede orokorrari eta kasuan kasuko neurria hartuta lortu nahi den berariazko helburuari.

Beraz, kasuan-kasuan egokitasunari buruzko iritzia eman ahal izateko, funtsezkoa da arrazoiketa ezagutzea, edo, bestela esanda, jakitea zer arrazoik justifikatzen duten neurri hori hartzea eta zer xede duen hark.

Auzitegi Gorenak adierazi du, erabaki diskrezionalak hartzeko, ezinbestekoa dela arrazoitzea, hori delako zentzuz jokatu izanaren bermea eta, gainera, erabaki horiek behar bezala kontrolatzeko aukera ematen duelako (Administrazioarekiko Auzien Salaren 7. Atalaren 1999ko ekainaren 1eko Epaia).

Andaluziako Justizia Auzitegi Nagusiak antzeko iritzia eman du, eta azpimarratu du oso garrantzitsua dela erabaki diskrezionalak arrazoitzea. Honako hau adierazi du:

*“Dado que las potestades administrativas, y por tanto también las discrecionales, son atribuidas por el ordenamiento jurídico a la Administración para que ésta pueda servir los intereses generales –art. 103.1 de la Constitución– es claro que la actuación de aquéllas no puede legalmente ser cauce hábil para la arbitrariedad. Y es la motivación de las decisiones discrecionales un importante instrumento a la hora de evitar que el resultado de la discrecionalidad sea una arbitrariedad. El poder administrativo de un Estado de Derecho es siempre, y más todavía el poder*



*discrecional, un poder obligado a dar cuenta de su efectivo servicio a la función para la que fue creado, a justificarse en su ejercicio y a justificar también su conformidad a la Ley y al Derecho, a los que está expresa y plenamente sometido por la Norma Fundamental y en esta línea, «la motivación de la decisión comienza, pues, por marcar la diferencia entre lo discrecional y lo arbitrario y ello porque, si no hay motivación que la sostenga, el único apoyo de la decisión será la sola e insuficiente voluntad del órgano competente» (552/2000 Epaia, apirilaren 24koa, Administrazioarekiko Auzien Sala, Granada, Atal Bakarra, zuzenbideko oinarrietatik laugarrena).*

Aipatutako ikuspegitik aztertu ahal izateko Gorkizen ibilgailuak aparkatzea mugatzeko eta antolatzeko kontrol-zerbitzu publikoa arautzen duen ordenantzan erroldatutako egoiliarrei eta udalerriko oporretako egoiliarrei ematen zaien tratu desberdina, aintzat hartu behar da zer helbururekin egin duen udalak bereizketa hori, eta zer arrazoik justifikatu duten erabaki hori hartzea.

Adierazi dugunez, udalak, hasieran, egoiliarrei tratu desberdina ematea justifikatze aldera, hauxe aipatu zuen: erroldatutako egoiliarrek *“son necesariamente usuarios del servicio, toda vez que desarrollan su vida en el municipio, en tanto que los residentes vacacionales se desplazan a Górliz únicamente algunos meses o semanas al año”,* eta *“contribuyen con sus obligaciones fiscales al mantenimiento de los servicios municipales”,* eta oporretako egoiliarrek, berriz, *“tributan y gozan por ello de derechos en sus municipios de procedencia”.*

Udalak, erakunde honek egin zuen kexaren inguruko balorazioari emandako erantzunean, oinarri hori bera berretsi zuen. Aitzitik, ez zituen kontuan izan Arartekoak helarazi zizkion gogoetak, zeinak atal honetan azaldutakoekin bat baitzetozen, eta ez zuen horiei buruzko bere iritzia eman.

Erakunde honen ustez, aparkaldi mugatuko sistemen erregulazioetan ezarritako egoiliarren araubideen helburua da egoiliarrek beren bizilekutik gertu aparkatu ahal izatea beren ibilgailua, alde batera utzita sistema horiek ezarritako trabak.

Premisa horretatik abiatuta —udalak ez du hura zalantzan jarri—, zerbitzua arautzen duen ordenantzan ezarritako egoiliarren araubideak aurre egin behar dien aparkatzeko premia, erakunde honen iritziz, berdina da egoiliar guztientzat, erroldatuta egon ala oporretako egoiliarrak izan.



Balorazio hori egitean, bereziki kontuan hartu da aparkaldi mugatuko araubidea ekainetik irailera bitartean, hau da, udan, baino ez dagoela indarrean, eta horixe dela, hain zuzen ere, oporretako egoiliarrek udalerrian bizi diren aldia (zerbitzua arautzen duen ordenantzaren 5. artikulua).

Hori dela eta, Arartekoak ez du funtsezko desberdintasunik hautematen egoiliar batzuen eta besteen artean aparkatzeko premiei dagokienez, eta ez du uste, beraz, araubide desberdina ezarri behar denik talde bakoitzarentzat.

Beste daturik ez dugunez, erakunde honek ez du alde nabarmenik hautematen erroldatutako egoiliarren eta etxebizitza jabetzan duten oporretako egoiliarren (horixe da kexagilearen kasua) artean udal-zergen ordainketari dagokionez, salbu eta ibilgailuen udal-zergari dagokionez, beste udalerrri batean erroldatuta dauden oporretako egoiliarrek ez baitute zerga hori Gorkizen ordaintzen.

Zehaztu beharra dago, hala ere, titularrak udalerrri horretan erroldatuta ez dituzten enpresako ibilgailuek edo finantza-errentamenduko araubideko ibilgailuek ere ez dutela zerga hori Gorkizen ordaintzen, eta, hala ere, ibilgailu horiek erroldatutako egoiliarren araubidean sartu direla, baldin eta erroldatutako egoiliarrek erabiltzen bazituzten horiek (zerbitzua arautzen duen ordenantzaren 11.4. artikulua).

Azaldutako guztiagatik, erakunde honen ustez, udalak eman dituen azalpenek ez dute justifikatzen zerbitzua arautzen duen ordenantza tratu desberdina ematea egoiliar batzuei eta besteei, eta udalak ordenantza horri buruz ezarritako xedapenak berrikusi beharko lituzke, atal honetan jasotako parametroen arabera.

7. Interesdunak egindako eskaerari udalak hasieran eman zion erantzuna, erakunde honen iritziz, ez zen guztiz bat etorri eskaeran adierazitakoarekin eta haren oinarriarekin. Interesdunak, hain zuzen ere, hauxe eskatu zuen: itzul ziezazkiotela bidegabe kobratu zizkieten zenbatekoak, hain zuzen ere 2018an erosi zuen oporretako egoiliarrentzako lehen aparkatze-bonuari eta egindako kudeaketaren ondorioz sistema urte horretan indarrean egon ez zen aldiari zegozkionak.

Berriz ere esan behar da eskaerak ez zuela helburu egindako kudeaketak interesdunari eragin zizkion kalteak konpontzea, baizik eta, bere ustez, zerbitzua arautzen duen ordenantza behar ez bezala aplikatzearen ondorioz, bidegabe ordaindu zituen zenbatekoak, hau da, lehen bonuaren prezioaren (30 euro) eta hura lortzeko ordaindu behar izan zuen zenbatekoaren (50 euro) arteko aldea, eta zerbitzua eman ez zen aldirako erosi zituen bonuen zenbatekoa itzultzea.





Gauzak horrela, erakunde honek udalari adierazi zion ezen, interesdunak ondare-erantzukizuneko eskaera egin bazuen ere zerbitzuaren funtzionamendu okerrak eragindako kalteengatik ordaina eman ziezaioten (udal-informazioak eskaera hori zuen hizpide), erantzun kongruentea eman behar ziola pertsona horrek bidegabeko diru-sarrerak itzul ziezazkioten egin zuen eskaerari.

Aurrekarietan adierazi dugunez, udalak hitzeman zuen interesdunaren eskaera hori ebatziko zuela.

Hala ere, kexagileak erakunde horri adierazi dio ez duela ebazpenik jaso.

Hori guztia dela eta, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak —erakunde hau sortu eta arautzekoak— 11.b) artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, honako gomendio hau egiten diogu Gorlizko Udalari:

### **GOMENDIOA**

Berriz azter dezala ibilgailuak aparkatzea mugatzeko eta antolatzeko kontrol-zerbitzu publikoa arautzen duen ordenantza, erroldatutako egoiliarrei eta oporretako egoiliarrei ematen zaien tratamenduari dagokionez, horren inguruan azaldu diren parametroen arabera.

Ebatz dezala, era kongruentean, 2018ko zerbitzuaren kudeaketaren ondoriozko bidegabeko diru-sarrerak itzul diezazkioten kexagileak egin duen eskaera.

